

Prentsa oharra

Nota de prensa



UDALAK URUMEA IBAIA GARBITZEKO AURREKONTUA ESKATU DU

Donostiako Udaleko Hiri Mantentze Lanetako sailak aparteko aurrekontua eskatu du Urumea ibaia garbitzeko.

Miguel Ángel Díez arloko zinegotziak ibaiak gaur egun duen egoera deitoratu du. “Denok atsekabetu gaituen gertakari bat izan da. Zoritxarrez, ez da ezohikoa ingurumen-kontzientziarik gabeko pertsonen ibaian botatzen dituzten hondakinak ikustea, baina orain ikusi daitekeena prezipitazioen eta ur-goraldi handien metaketa bat izan daiteke, Urumea ibaiaren meandroaren ondora hondakinak eraman dituenena.”.

Ibaia garbitzea eta mantentzea ez da udalaren ohiko eskumena. Kostaldeetako Zuzendaritzari edo URari dagokie lan hori egitea, baina Udalak, 2011-2015 legegintzaldian, hitzarmen bat sinatu zuen URarekin, Urumea garbitzeko ardura bere gain hartzeko. Hitzarmen hori amaitu da jada, eta ez zuen udal-teknikarien babesik jaso.

Impasse hori konpontzeko zain eta pilatutako hondakinak ikusita, Diezek adierazi du “aurrekontu bat eskatu dugu, ibaiaren garbiketa zenbatekoa den jakiteko. Aurrekontu hori itsasontziz eta itsaspeko ekipoz egin beharko da, ikusten diren hondakinak kentzeko. Partida bat bilatu beharko da ekintza horri ekiteko, aurrekontuetan aurreikusita ez zegoena.

Udalaren ustez, egoera honek konponbide bat bilatzea eskatzen du, ibaiaren mantentzean inplikaturako alde bakoitzaren eskumenen inguruan, etorkizuneko arazoak saihesteko.